# Xedapen Orokorrak

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

### 6747

EBAZPENA, 2007ko urriaren 23koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolaren Arautegia EHAAn argitara dadila agintzeko dena.

Unibertsitateak bere araubide propioa dauka erakundea antolatzeko, bere interesen defentsan aritzeko balio diona, Konstituzioak 27.10 artikuluan onartzen duen unibertsitateen autonomiatik eratorria. Araubide horri atxikita dago bere arauak egiteko erakundeak daukan ahalmena.

Ahalmen horrez baliatuta, Unibertsitateak bere Estatutuak dauzka, erakundearen antolaketaren ezaugarri berezi diren arlo eta organoak erregulatzen dituzten oinarrizko arauak. Eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuetako 189. artikuluak dio ikastegi bakoitzak bere arautegia izango duela, Ikastegi Batzarrak egin eta Gobernu Kontseiluak onartu beharko duena.

2004ko martxoaren 12an argitaratu zen EHAAn otsailaren 25eko 3/2004 Legea, Euskal Unibertsitate Sistemarena. Eta lege horren 10. artikuluko bigarren atalean adierazten denez, antolaketaren eta jarduteko moduaren gainean unibertsitate publikoko gobernu-organoek emandako estatutuak eta arauak, baita horien gaineko aldaketak eta orokorrean aplikatzekoak diren xedapenak ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, eta ez dira indarrean jarriko harik eta testuak oso-osorik argitaratu arte.

Gobernu Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak, bi mila eta zazpiko urriaren 16ko bileran, Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolaren Arautegia onartzea erabaki zuen.

Aipaturikoa kontuan hartuta, eta Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legeko 10. artikuluko bigarren atala betetzeko, ondokoa

ERABAKI DUT,

*Lehenengoa.–* Eranskinean aipatzen den Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolaren Arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

*Bigarrena.–* Erabaki hau irmoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da haren kontra, hila-

# Disposiciones Generales

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

### 6747

RESOLUCIÓN de 23 de octubre de 2007, del Secretario General de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se ordena publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el Reglamento de la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar.

La Universidad cuenta con un régimen propio de autoorganización, poder ejercitable para la defensa de sus intereses propios, derivado del reconocimiento que la Constitución en su artículo 27.10 hace de la autonomía de las Universidades. Elemento sustancial de este régimen es la capacidad de autonormación.

En ejercicio de esta capacidad la Universidad se dota de sus Estatutos, normas básicas que regulan por sí mismos aquellas materias y órganos que estructuran los rasgos esenciales de la organización universitaria. El artículo 189 de los Estatutos de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea dispone que los centros docentes se regirán por un Reglamento elaborado por la Junta de Centro y aprobado por el Consejo de Gobierno.

Con fecha 12 de marzo de 2004 se publicó en el BOPV la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco. Esta Ley establece en su artículo 10, apartado dos, que los estatutos y las normas de organización y funcionamiento de la universidad pública, así como sus modificaciones y las disposiciones de general aplicación que dicten los órganos de gobierno de la misma, serán publicados en el BOPV y no entrarán en vigor hasta la íntegra publicación de sus textos.

La Comisión Permanente del Consejo de Gobierno en su sesión de 16 de octubre de dos mil siete acordó aprobar el Reglamento de Centro de la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar.

Por todo lo anterior, en cumplimiento del apartado segundo del artículo 10 de la Ley 3/2004, del Sistema Universitario Vasco.

RESUELVO:

*Primero.–* Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el Reglamento de la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar en los términos recogidos en el anexo.

*Segundo.–* Esta Resolución por ser firme agota la vía administrativa y contra ella se podrá interponer en el plazo de un mes recurso potestativo de reposición ante

beteko epearen barruan, erabakia hartu zuen organoan. Bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan bi hilabeteko epearen barruan. Beti ere, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Leioa, 2007ko urriaren 23a.

Idazkari nagusia,
IÑAKI ESPARZA LEIBAR.

ERANSKINA

EIBARKO INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOKO UNIBERTSITATE ESKOLAREN ARAUTEGIA

ATARIKOA

Arautegi honetan, Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolako jarduerak gobernatuko dituzten ildoak jasotzen dira. Ildo horiek Estatutuak errespetatuko dituzte (abenduaren 23ko 322/2003 Dekretua, 2004ko urtarrilaren 12ko EHAA), eta baita aplika daitekeen legeria ere.

I. TITULUA

EIBARKO INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOKO UNIBERTSITATE ESKOLA. IZAERA, OSAERA ETA EGINKIZUNAK

*1. artikulua.*– Definizioa.

1.– Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola Euskal Herriko Unibertsitatearen barruan dago. Unibertsitatearen helburu orokorretan parte hartzen duen ikastegia da, ingeniaritza ikasketetan zientziaren eta kulturaren sorrera, garapen, transmisio eta kritikari dagokienez. Eskola arduratzen da bere ikasketa planetan dauden diziplinen ikaskuntza antolatzeaz, diziplina horiek irakasteaz eta diziplina horietako ikerkuntza bultzatzeaz, eta baita ere bere espezialitatearen zerbitzu publikoa emateak berekin dakarren gestio administratiboaz eta titulu akademikoak emateaz, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoko 34.2 artikuluaren arabera.

2.– Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolak, kanpora zabaltzerakoan, bere jarduera burutzen duen inguruneko industria garapenari lagunduko dio, ematen duen irakaskuntza gizartearen beharretara hurbilduz.

3.– I. eranskinean gaur egun Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan eskaintzen diren titulazioak daude.

*2. artikulua.*– Araubide juridikoa.

el órgano que la dictó, o recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao en el plazo de dos meses en ambos casos desde el día siguiente a su publicación en el BOPV.

En Leioa, a 23 de octubre de 2007.

El Secretario General,
IÑAKI ESPARZA LEIBAR.

ANEXO

REGLAMENTO DE LA ESCUELA UNIVERSITARIA DE INGENIERÍA TÉCNICA INDUSTRIAL DE EIBAR

PREÁMBULO

El presente Reglamento recoge el conjunto de directrices que rigen las actividades de la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar. Estas directrices se mantendrán dentro del Marco Estatutario (Decreto 322/2003, de 23 de diciembre, BOPV de 12 de enero de 2004), así como la legislación aplicable.

TÍTULO I

LA ESCUELA UNIVERSITARIA DE INGENIERÍA TÉCNICA INDUSTRIAL DE EIBAR. NATURALEZA, COMPOSICIÓN Y COMPETENCIAS

*Artículo 1.*– Definición.

1.– La Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar forma parte de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea; es un Centro docente que participa de los fines generales de la Universidad en cuanto a la creación, desarrollo, transmisión y crítica de la ciencia y la cultura en las ingenierías. Está encargada de la organización del estudio, la impartición de la docencia y el apoyo al desarrollo de la investigación de las disciplinas incluidas en sus planes de estudio, así como de la gestión administrativa inherente a la prestación del servicio público de su especialidad y a la expedición de títulos académicos de acuerdo con lo estipulado en la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre en su artículo 34.2.

2.– La Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar en su proyección externa contribuirá al desarrollo industrial del entorno en el que desarrolla su actividad, acercando las enseñanzas que imparte a las necesidades sociales.

3.– En el anexo I se citan las titulaciones actuales existentes en la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica de Eibar.

*Artículo 2.*– Régimen Jurídico.

1.– Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolaren egoitza hemen dago: Otaola etorbidea 29, 20600 Eibar (Gipuzkoa).

2.– Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola honako hauen bidez arautuko da: indarrean dagoen legeria, UPV/EHUko Estatutuak, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onarturiko arautegi hau eta UPV/EHUko Ikastegien Oinarrizko Arautegia (arautegi honetan arautzen ez den guztirako oinarrizkoa erabiliko da), eta aplika dakizkiokeen gainerako arautegiak.

3.– Arautegi honek errespetatzen ditu Konstituzioa, indarrean dauden legeak eta UPV/EHUko araudia, eta berau interpretatzea Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolako Ikastegiko Batzarrari dagokio, UPV/EHUko zerbitzu juridikoei kontsultatu ondoren.

4.– Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolak honako titulazioak ematen ditu:

– Industria Ingeniaritza Teknikoa, Mekanika espezialitatea.

– Industria Ingeniaritza Teknikoa, Industria Elektronikoa espezialitatea.

5.– Hauek dira irakaskuntza eta ikerkuntza ardurak dituzten Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolako sailak:

147.– Elektronika eta Telekomunikazioak.

136.– Adierazpen Grafikoa eta Ingeniaritzako Proiektuak.

103.– Ingeles eta Aleman Filologia.

113.– Euskal Filologia.

057.– Fisika Aplikatua I.

146.– Sistemen Ingeniaritza eta Automatika.

142.– Ingeniaritza Elektrikoa.

145.– Ingeniaritza Mekanikoa.

149.– Ingeniaritza Nuklearra eta Jariakinen Mekanika.

112.– Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza.

141.– Hizkuntza eta Sistema Informatikoak.

148.– Makina eta Motor Termikoak.

066.– Matematika Aplikatua.

054.– Enpresen Antolakuntza.

6.– Dokumentu honen II. eranskinean agertzen da laborategi, gela, bulego, liburutegi eta beste hainbat zerbitzuren zerrenda.

7.– Jasotzen diren iradokizun, kexa eta erreklamazioei erantzun egokia emate aldera, Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolak definituta dauzka bere Kalitatea Gestionatzeko Sistemaren barruan, haiek gestionatzeko behar diren prozesuak, eten-

1.– La Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar tiene su sede en la Avenida de Otaola n.º 29, 20600 Eibar (Gipuzkoa).

2.– La Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar se regirá por la legislación vigente, por los Estatutos de la UPV/EHU, por este Reglamento aprobado en Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, y en lo previsto en el mismo por el Reglamento Marco de Centros de la UPV/EHU que tendrá carácter supletorio, y por las demás normativas que le sean de aplicación.

3.– El presente Reglamento está sometido a la constitución, a las leyes vigentes y a la normativa de la UPV/EHU, siendo su interpretación competencia de la Junta de Centro de la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar previa consulta a los servicios jurídicos de la UPV/EHU.

4.– La Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar imparte, las titulaciones de:

– Ingeniería Técnica Industrial, especialidad en Mecánica.

– Ingeniería Técnica Industrial, especialidad en Electrónica Industrial.

5.– Los Departamentos con responsabilidades docentes e investigadores en la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar son:

147.– Electrónica y Telecomunicaciones.

136.– Expresión Gráfica y Proyectos de Ingeniería.

103.– Filología Inglesa y Alemana.

113.– Filología Vasca.

057.– Física Aplicada I.

146.– Ingeniería de Sistemas y Automática.

142.– Ingeniería Eléctrica.

145.– Ingeniería Mecánica.

149.– Ingeniería Nuclear y Mecánica de Fluidos.

112.– Ingeniería Química y del Medio Ambiente.

141.– Lenguajes y Sistemas Informáticos.

148.– Máquinas y Motores Térmicos.

066.– Matemática Aplicada.

054.– Organización de Empresas.

6.– Existe una relación de laboratorios, aulas, despachos, biblioteca, y otros servicios que se adjuntan en anexo II a este documento.

7.– Con el fin de dar cumplida respuesta a las sugerencias, quejas y reclamaciones que se reciban, la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar tiene definido, dentro de su Sistema de Gestión de la Calidad, los procesos necesarios para la gestión de

gabeko hobekuntzara bideraturiko jarduerak identifikatzea eta ezartzea ahalbidetzen duten prozesuak.

1) «Erreklamazioak eta Gogobetetzea Neurtzea» izeneko prozesuen bidez gestionatzen dira kexak eta erreklamazioak.

Erreklamazio-orriak ikastegiko Idazkaritzan eskatzen dira. Erreklamazioa Eibarko IITUEko Kalitatea Gestionatzeko Sistemarekin zerikusia duen edozein pertsona fisikok edo juridikok aurkez dezake, horretarako arrazoia eta egin den eguna adieraziz. Orria bete ondoren, ikastegiko Idazkaritzan utziko da eta Idazkaritzak «Erreklamazio Orria» inprimakia Akademia Antolakuntzako zuzendariordeari emango dio.

Erreklamazioa jaso ondoren, Akademia Antolakuntzako zuzendariordeak aztertu eta, emandako datuen arabera, erabakiko du zein den edo diren burutu beharreko ekintza edo ekintzak, aurkeztutako erreklamazioari erantzuna emateko. Burutu beharreko ekintzak proposatu ondoren, Akademia Antolakuntzako zuzendariordeak atal hori sinatuko du eta data jarriko.

Akademia Antolakuntzako zuzendariordeak erreklamazio-orria Kalitateaz arduratzen den pertsonari emango dio, erabakitako ekintza edo ekintzak azter ditzan eta esan dezan beharrezkoa den ala ez zuzentzeko, prebenitzeko edo hobetzeko neurriren bat hartzea. Hala erabakiz gero, «Zuzentzeko, prebenitzeko eta hobetzeko neurrien Gestioa» izeneko prozesuaren arabera jokatuko du.

Zuzentzeko, prebenitzeko edo hobetzeko neurriren bat hartu beharra ikusten badu, Kalitate arduradunak atal hori sinatuko du eta data jarriko.

Kalitateaz arduratzen den pertsona IITUEko Zuzendaritzari aurkeztuko dio erreklamazioa, horri buruzko azken erabakia har dezan eta erabaki hori erreklamazioa aurkeztu duenak jaso dezan.

2) Iradokizunak «Kalitate eta Zuzendaritzaren Berrikuspen Batzordearen» prozesuen bidez kudeatzen dira.

Eibarko IITUEko pertsonalak (irakasleak eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalak) eta ikasleek iradokizunak egiteko eta informazioa eskatzeko, «Iradokizunen, Informazio Eskaeraren eta Beste jakinarazpen batzuen Orria» izeneko inprimakiaren arabera egin daiteke.

IITUEko ikasleei jakinarazpen ofizialak egitea zuzendariaren ardura da eta pertsonalari jakinaraztea, berriz, Kalitate arduradunarena.

8.– Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolaren anagramak elementu hauek ditu: San Andresen gurutzea, Eibar hiriaren irudi; engranaje urdin bat, mekanikaren irudi; eta uhin sinusoidal bat, elektronikaren irudi, III. eranskinean jasotzen den legez.

las mismas, cuyo análisis permita identificar y establecer acciones orientadas a la mejora continua.

1) Las quejas y reclamaciones se gestionan a través de los procesos de «Medición de la Satisfacción y Reclamaciones».

Los impresos de reclamación se solicitan en la Secretaría del Centro. Estas reclamaciones son presentadas por cualquier persona física o jurídica relacionada con el Sistema de Gestión de Calidad de EUITIE, indicando el motivo y la fecha de realización. Una vez cumplimentada será entregada en la Secretaría del Centro, quien trasladará el impreso «Hoja de Reclamaciones» al Subdirector de Ordenación Académica.

Recibida la reclamación, el Subdirector de Ordenación Académica procede a su análisis y decide, a la luz de los datos aportados, cuál es la acción o acciones que son necesarias adoptar para dar respuesta a la reclamación planteada. Una vez propuestas la acción o acciones a emprender, el Subdirector de Ordenación Académica procede a la firma y fechado de dicho apartado.

El Subdirector de Ordenación Académica entrega la hoja de Reclamaciones a la persona responsable de Calidad para que analice la acción o acciones adoptadas y compruebe si resulta necesario abrir alguna acción correctiva, preventiva o de mejora en cuyo caso actúa conforme al proceso «Gestión de Acciones Correctivas, Preventivas y de Mejora».

Una vez revisado si es necesario abrir alguna acción correctiva, preventiva o de mejora, la persona responsable de Calidad procede a la firma y fechado de dicho apartado.

La persona responsable de Calidad presenta a la Dirección de la EUTIE la reclamación para que tome la decisión final sobre la misma, y se proceda a comunicársela a quien la ha planteado.

2) Las sugerencias se gestionan a través de los procesos de «Comité de Calidad y Revisión por la Dirección».

Tanto la formulación de sugerencias como la solicitud de información, por parte tanto del personal de la EUITIE (Profesorado y Personal de Administración y Servicios) como el Alumnado, puede realizarse según el Impreso «Hoja de Sugerencias, Solicitud de Información y otros comunicados».

La comunicación oficial al alumno es responsabilidad del Director y la comunicación al personal de la EUITIE es responsabilidad de persona responsable de la Calidad.

8.– El anagrama de la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar contiene la cruz de San Andrés en representación de la ciudad de Eibar, un engranaje azul representado a la mecánica y una senoide en representación de la electrónica, tal como se relaciona en el anexo III.

*3. artikulua.–* Osaera.

1.– Hauek dira Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolako kideak:

a) Ofizialki ikastegira atxikita dauden irakasle guztiak.

b) Ikastegian irakasten diren titulazio eta ikasketa ofizialetan matrikulatuta dauden ikasle guztiak.

c) Ikastegira atxikitako administrazio eta zerbitzuetako langileak.

2.– Ikastegiari lotuta egongo dira, baina kide izateke, ikastegira atxikita egon gabe bertan eskolak ematen dituzten irakasleak, ikastegian egoitza daukaten sail edo institutuetako ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak, eta ikastegian zerbitzuak ematen dituztenak.

*4. artikulua.–* Eginkizunak.

Hauek dira Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolaren eginkizunak:

a) Bai irakaskuntzari bai gestioari dagokionez, ematen dituen UPV/EHUko titulu akademiko ofizialak edo berezkoak antolatzea, bai eta bestelako espezializazio ikastaro, etengabeko prestakuntzarako edo unibertsitate nahiz kultur hedakuntzarako ikastaroak ere, kontuan izanik bere inguruko gizartea eta lan mundua.

b) Urtero irakats eskaintza egitea, UPV/EHUko ikasketa programazioaren arabera, bai eta ikasturte bakoitzerako ikasketa planak ere, titulazio bakoitzean eskolak ematen dituzten sail guztiekin koordinazioan.

c) Ikasketa planak onetsi edo aldatzea proposatzea, eta UPV/EHUko beste organo batzuek halakorik proposatzen dutenean eta horrek berari eragiten dienean, ikasketa planak onetsi edo aldatzeko prozesuetan parte hartzea.

d) Ikastegietan ematen diren titulazioen funtzionamendu orokorra ebaluatzea.

e) Irakasleek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek euren eginbeharrak betetzen dituztela jagotea.

f) Ikastegiaren aurrekontuko hornidura gestionatzea eta atxikita dauzkan baliabideak administratu eta langileak gidatzea.

g) Ikastegiaren urteroko plana garatu eta betetzea.

h) Urteroko memoria egitea.

i) Hizkuntza plangintza orokorra garatu eta ikastegira egokitzea, eta bermatzea, bere eskumenen eta funtzioen barruan, euskararen erabilera.

j) Etengabeko hobekuntza bultzatzea, eta atxikiriko langileen trebetasun pedagogikoa nahiz prestakuntza eguneratzea.

*Artículo 3.–* Composición.

1.– Son miembros de la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar:

a) El profesorado oficialmente adscrito a la misma.

b) Todo el alumnado matriculado en alguna de las titulaciones y estudios oficiales que se imparten en la misma.

c) El personal de administración y servicios adscritos a la misma.

2.– Están vinculados a la Escuela, sin ostentar la condición de miembros de la misma, otro profesorado que imparta enseñanzas en el Centro docente, el personal de investigación, y el personal de administración y servicios de los departamentos o Institutos con sede en el Centro, o que en él preste sus servicios sin estar adscrito al mismo.

*Artículo 4.–* Funciones.

Son funciones de la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar:

a) Organizar la docencia y gestión de los títulos oficiales o propios de la UPV/EHU que imparta, u otros cursos de especialización, formación permanente o extensión cultural o universitaria, teniendo en cuenta el entorno social y laboral en que se ubica.

b) Elaborar la oferta docente anual de acuerdo con la programación docente de la UPV/EHU y los planes de estudio para cada curso académico en coordinación con los Departamentos con docencia en la misma.

c) Proponer los planes de estudio para su aprobación o modificación, así como participar en el procedimiento de aprobación, o modificación de idénticas propuestas cuando la iniciativa surja de otros órganos de la UPV/EHU y siempre que les afecte.

d) Evaluar el funcionamiento general de las titulaciones que en ella se impartan.

e) Velar por el cumplimiento de las obligaciones del profesorado y del personal de administración y servicios.

f) Gestionar la dotación presupuestaria, administrar los medios materiales y dirigir los recursos humanos adscritos a la misma.

g) Desarrollar y ejecutar la planificación anual del Centro.

h) Elaborar la Memoria anual.

i) Adaptar y desarrollar la planificación lingüística general y garantizar, en el marco de sus competencias y funciones el uso del euskera.

j) Incentivar la mejora continua, la renovación pedagógica y la cualificación de su personal adscrito.

k) UPV/EHUko gainerako organoei laguntzea euren eginkizunak betetzen.

l) Zientzia, teknika, arte eta giza zientzien arloko jarduerak bultzatzea, eta espezializazio nahiz unibertsitate hedakuntzarako ikastaroak sustatzea.

m) Legeak, Estatutuek edo unibertsitate arautegiak bere gain uzten dituzten gainerako eginkizun guztiak.

II. TITULUA

EIBARKO INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOKO UNIBERTSITATE ESKOLAKO GOBERNU, ORDEZKARITZA ETA AHOLKULARITZA ORGANOAK

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

*5. artikulua.–* Gobernu, ordezkaritza eta administrazio organoak.

Honako hauek dira gobernu, ordezkaritza eta administrazio organoak: Ikastegiko Batzarra, zuzendaria, zuzendariordea, idazkari akademikoa eta administratzailea.

II. KAPITULUA
KIDE ANITZEKO ORGANOAK

*6. artikulua.–* Definizioa.

Honako hauek dira kide anitzeko gobernu organoak: Ikastegiko Batzarra eta Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan sortutako batzorde guztiak, ebazpenak hartzeko berezko eskumena dutenak zein eskumen hori eskuordetuta dutenak.

LEHENENGO ATALA
IKASTEGIKO BATZARRA

*7. artikulua.–* Osaera.

1.– Hauek izango dira Ikastegiko Batzarraren osakideak: zuzendaria, zuzendariordea (berezko kideak), idazkari akademikoa, administratzailea (berezko kideak), eta 30 kide, unibertsitateko kidegoen artean banatuko direnak, ikastegian ematen diren titulazioetan irakats betebeharra duten Sail guztien ordezkaritza bilatuz.

2.– Ikastegiko Batzarreko kideen % 20, gutxienez, ikasle izango da, eta % 11, gutxienez, administrazio eta zerbitzuetako langile. Kide guztien % 51, gutxienez, unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionario izango da.

Zuzendariak egingo du zuzendaritza taldea izendatzeko proposamena. Ikastegiko Batzarreko kideen % 51, gutxienez, irakasle funtzionario izango da.

k) Colaborar con los demás órganos de la UPV/EHU en la realización de sus funciones.

l) Promover la realización de actividades de carácter científico, técnico, humanístico y artístico, así como el desarrollo de cursos de especialización y de extensión universitaria.

m) Cualesquiera otras que la Ley, los Estatutos o la normativa universitaria les confiera.

TÍTULO II

DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO, REPRESENTACIÓN Y ASESORAMIENTO DE LA ESCUELA UNIVERSITARIA DE INGENIERÍA TÉCNICA INDUSTRIAL DE EIBAR

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 5.–* Órganos de gobierno, representación y administración.

Son órganos de gobierno, representación y administración, La Junta de Centro, la Dirección, las Subdirecciones, la Secretaría Académica y la Administración.

CAPÍTULO II
DE LOS ÓRGANOS COLEGIADOS

*Artículo 6.–* Definición.

Son órganos colegiados de gobierno la Junta de Centro y todas las Comisiones con competencias resolutorias propias o delegadas, creadas en la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar.

SECCIÓN PRIMERA
LA JUNTA DE CENTRO

*Artículo 7.–* Composición.

1.– Estará integrada por el Director o Directora que la preside, los Subdirectores o Subdirectoras que serán miembros natos, quien ostente la Secretaría Académica, la Administración que serán miembros natos y por 30 miembros, distribuido entre los distintos sectores universitarios procurando la representación de todos los Departamentos con responsabilidades docentes en las titulaciones impartidas en el Centro.

2.– En la Junta de Centro deberá haber al menos un 20% de alumnos y un 11% de personal de administración y servicios, y al menos el 51% del total de los miembros serán funcionarios de los cuerpos docentes universitarios.

La propuesta de nombramiento del equipo de dirección que efectúe el Director o la Directora respetará la obligación de que el 51% de la totalidad de miembros de la Junta de Centro se Profesorado Funcionario.

3.– Batzarreko kideak sufragio unibertsal bidez hautatuko dira, unibertsitateko kolektibo desberdinen artetik, eta honako banaketaren arabera:

16 kide, unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionarioen ordezkariak.

3 kide, beste irakasle eta ikertzaileen ordezkariak.

7 kide, ikasleen ordezkariak.

4 kide, administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkariak.

4.– Ikastegiko Batzarrak bere arautegia izango du funtzionamendurako eta, kide hautatuak lau urtetik behin aldatuko dira. Salbuespena ikasleen ordezkariak izango dira, horiek urtero aldatuko baitira.

5.– Ikastegiko Batzarreko kideak hautatzean bete egin beharko da Estatutuek xedatutakoa eta UPV/EHUko Hauteskunde Arautegi Orokorrean zehaztutako prozedura.

*8. artikulua.–* Ikastegiko Batzarraren eskumenak.

1.– Ikastegiko Batzarra da kide anitzeko ohiko gobernu organoa Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan.

2.– Ikastegiko Batzarraren erabakiak lotesleak izango dira Ikastegiko beste organo eta kideentzat, eta ikastegiaren bizitza akademikoan eragina daukaten oinarrizko erabaki guztiak hartu behar ditu, batez ere honakoak:

a) Ikastegiaren arautegia prestatu eta Gobernu Kontseiluari proposatzea, hark onar dezan.

b) Ikastegiko zuzendaria hautatzea.

c) Gobernu organoei irakasleen plantillan eta administrazio eta zerbitzuetako langileen plantillan dauden beharrizanak aurkeztea.

d) Unibertsitateko planetan biltzen diren helburuak ikastegira egokitzeko plana onartzea.

e) Hizkuntza normalkuntzarako planak betetzeko eta plan horiei jarraipena egiteko ikastegiak dauzkan premien memoriak aurkeztea Campuseko Errektoreordetzari, hark errektoreari edo, hala dagokionean, Gobernu Kontseiluari bidera diezazkion.

f) Ikastegiari atxikitako irakasle lanpostuen eskariez iritzia ematea.

g) Ikasketa planak eta euren aldaketak egin eta proposatzea Gobernu Kontseiluari, bai eta titulazioak ezarri, aldatu eta kentzeko proposamenak ere.

h) Ikastegiak eskaintzen dituen ikasketen kalitatea aldiro ebaluatuko dena bermatzea, eta unibertsitatearen zerbitzu publikoa hobetzeko neurriak proposatzea.

i) Irakasteko behar diren azpiegituren planak edo irakaskuntzan nahiz ikerkuntzan sortutako bestelako pre-

3.– Los miembros electos de Junta lo son por sufragio universal entre los distintos colectivos universitarios y de acuerdo a la siguiente distribución:

16 miembros representantes de funcionarios de los cuerpos docentes universitarios.

3 miembros representantes de otro personal docente o investigador.

7 miembros representantes de los estudiantes.

4 miembros representantes del personal de administración y servicios.

4.– La Junta de Centro se regirá por el reglamento de funcionamiento propio y se renovará, en la parte de miembros electos, cada cuatro años, excepto en lo que se refiere a la representación del alumnado, que habrá de renovarse cada año.

5.– Para la elección de los miembros de la Junta de Centro, se deberá respetar lo preceptuado en los Estatutos y el procedimiento establecido en el reglamento de régimen electoral general de la UPV/EHU.

*Artículo 8.–* Competencias de la Junta de Centro.

1.– La Junta de Centro es el órgano colegiado ordinario de gobierno de la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar,

2.– Las decisiones de la Junta de Centro serán vinculantes para los demás órganos y miembros del Centro y le corresponde adoptar todas las decisiones fundamentales que afecten a la vida académica del mismo y, en particular las siguientes:

a) Elaborar y proponer al Consejo de Gobierno, para su aprobación, el Reglamento de Centro.

b) Elegir al Director o Directora del Centro.

c) Elevar a los órganos de gobierno las necesidades de plantilla del profesorado y del personal de administración y servicios del Centro.

d) Aprobar el plan de adecuación al Centro de los objetivos contenidos en los planes universitarios.

e) Elevar al Vicerrectorado de Campus, para su tramitación ante el Rector o, en su caso, al Consejo de Gobierno, las Memorias de necesidades para cumplir los planes de normalización lingüística y realizar el seguimiento de dichos planes.

f) Informar las solicitudes de plazas de profesorado adscrito al Centro.

g) Elaborar y proponer al Consejo de Gobierno los planes de estudios y su modificación, así como la implantación, modificación y supresión de titulaciones.

h) Garantizar la realización de evaluaciones regulares de calidad sobre la oferta docente del Centro y proponer medidas de mejora del Servicio Público Universitario.

i) Aprobar, contando con los Departamentos o secciones departamentales adscritos al Centro y previa va-

mien planak aztertu eta onartzea, kontuan hartuta ikastegiari atxikitako sail edo sail atalen iritzia.

j) Kalitate arduraduna izendatzea, Ikastegiko zuzendaritzak proposatuta.

k) Bere zereginak betetzeko egoki diren batzordeak eratzea.

l) Irakasleen eta ikasleen ordezkaria izendatzea Campuseko Batzarrerako. Ikasleen ordezkaria izendatzeko proposamena ikastegiko Ikasleen Kontseiluak egingo du.

m) Ikastegiak, beharrezkoa izanez gero, bere esker ona adierazteko erabiliko dituen moduak zabaldu eta arautzea.

n) UPV/EHUko Estatutuek eta beroriek garatzen dituzten arauek bere gain uzten dituzten gainerako eginkizun guztiak, edo UPV/EHUko beste gobernu organoek eskuordetzen dizkionak.

3.– Ikastegiko Batzarrak ohiko bileran eztabaidatu eta bozkatuko ditu urteko memoria, eginkizun plana eta urteko txosten ekonomikoa. Dokumentu horiek zuzendariak aurkeztuko ditu bileran. Memoria eta eginkizunen plana behin onartuta, Campuseko Batzarrari eta Gobernu Kontseiluari bidaliko zaizkio, jakitun egon gaitezen.

BIGARREN ATALA
BATZORDEAK

1.– Ikastegiko Batzordeak.

– Batzorde Iraunkorra.

– Akademia Antolakuntzako eta Ikasketak Baliozkotzeko Batzordea.

– Euskarako Batzordea.

– Kalitate Batzordea.

– Hauteskunde Batzordea.

– Ekonomi Batzordea.

2.– Kontrako xedapenik ezean, Ikastegiko Batzordeetako buru zuzendaria edo hark bere ordez izendatzen duen pertsona izango da. Batzorde horiek, gutxienez, estamentu bakoitzeko ordezkari bat izango dute, eta urtebeteko iraupena izango dute.

3.– Hauteskunde, Kalitate eta Ekonomi Batzordeak kontsulta izaera izango du.

4.– Kolektibo batek pertsona bat batzorde bateko kide hautatzeko, pertsona horrek ez du Batzarreko kide izan beharrik. Izendapena Ikastegiko Batzarrak egingo du ikasturte bakoitzaren hasieran, edo batzordea osatzean.

5.– Batzordeen bileretarako deia batzorde horien buru denak egingo du, batzorde horietako bi kidek edo Ikastegiko Batzarreko kideen bostetik batek eskatuta.

loración de conjunto, los planes de infraestructuras docentes o de otras necesidades derivadas de la docencia e investigación.

j) Nombrar al responsable de calidad a propuesta de la Dirección del Centro.

k) Designar cuantas Comisiones juzgue oportunas para el ejercicio de sus funciones.

l) Designar al representante del profesorado y del alumnado, éste último a propuesta del Consejo de Estudiantes del Centro, en la Junta de Campus.

m) La creación y regulación, en su caso, de las condiciones para la concesión de reconocimientos honoríficos por parte del Centro.

n) Cuantas otras les confieran los Estatutos de la UPV/EHU y su normativa de desarrollo o les sean delegadas por otros órganos de gobierno de la UPV/EHU.

3.– La Junta de Centro en sesión ordinaria debatirá y votará su Memoria anual, el Plan de actividades del Centro y el Informe económico anual, presentados por la Dirección. La Memoria y el Plan de actividades aprobados serán remitidos, para su conocimiento a la Junta de Campus y al Consejo de Gobierno.

SECCIÓN SEGUNDA
COMISIONES

1.– Comisiones del Centro.

– La Comisión Permanente.

– La Comisión de Ordenación Académica y Convalidación de Estudios.

– La Comisión de Euskera.

– La Comisión de Calidad.

– La Comisión Electoral.

– La Comisión Económica.

2.– Salvo disposición en contrario, todas las comisiones del Centro estarán presididas por la Dirección o persona en quien delegue, y estarán compuestas, al menos, por un representante de cada estamento y tendrán una duración de un año.

3.– Las Comisiones Electoral, de Calidad y Económica tienen carácter consultivo.

4.– Para ser elegido miembro de cualquier comisión por un colectivo, no será necesario ostentar la condición de miembro de la Junta. El nombramiento se realizará por la Junta del Centro al comienzo de cada curso, o en el momento de su creación.

5.– Las comisiones se reunirán por convocatoria de su presidencia, a solicitud de dos de sus miembros o de un quinto de los miembros de Junta de Centro.

6.– Batzorde bakoitzak idazkari bat izendatuko du kideen artetik, egiten den lehenengo bileran. Idazkariaren eginkizunak hauek izango dira: bileren deia egitea batzordeko buruak hala eskatuta, eta bilera bakoitzean harturiko erabakien akta egitea.

Akta horiek, eta horiei buruzko dokumentuak, ikastegiko idazkari akademikoak gordeko ditu.

7.– Batzorde guztiek, ikasturte hasieran eta kide berriak hautatu aurretik, txosten bat aurkeztuko diote Ikastegiko Batzarrari, aurreko ikasturtean eginiko jarduerei buruzko informazioarekin.

*9. artikulua.–* Batzorde Iraunkorra.

1.– Ikastegiko Batzarrak eskuordeturiko Batzorde Iraunkorra ezartzen da. Batzordea honakook osatuko dute: zuzendaria (batzordeko burua), administratzailea (idazkari lanak egingo ditu), unibertsitateko irakasleen kidegokoetako funtzionarioen 6 ordezkari, beste irakasle eta ikertzaileen ordezkari 1, ikasleen 3 ordezkari, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari 1; guztiak Ikastegiko Batzarreko kide izango dira.

2.– Urtero berritu beharko da, eta Ikastegiko Batzarrean ikasleen ordezkariak hautatu ondorengo lehenengo ohiko bileran.

3.– Batzorde Iraunkorrak c), e), f) eta i) funtzioak eskuordetuta ditu, baita Ikastegiko Batzarrak egoki irizten dituen beste batzuk ere; hala ere, kanpo geratzen dira Araudi honetako 8. artikuluko 2. ataleko a), b), k) eta m) funtzioak.

4.– Harturiko erabakiak Ikastegiko Batzarrak berretsi edo aldatu beharko ditu, honen hurrengo deialdian, UPV/EHUko Sailen oinarrizko arautegiaren 16.2 artikuluan ezartzen diren jarraibideen arabera.

5.– Funtzionamendurako oinarrizko arauak Ikastegiko Batzarraren arau berak izango dira, eta % 60ko quoruma eskatuko da eratzeko eta akordioak baliozkoak izateko.

*10. artikulua.–* Beste batzorde batzuk.

a) Akademia Antolakuntzako eta Ikasketak Baliozkotzeko Batzordea.

1) Akademia Antolakuntzako zuzendariordeak eratuko du eta hiru irakasle eta hirugarren ikasturteko ikasle batek osatuko dute. Irakasleak eta ikaslea dagokien ordezkariek izendatuko dituzte Ikastegiko Batzarrean, baina ez dute bertako kide izan beharrik.

2) Batzorde hau ikasturte bakoitzean berritu egingo da, eta erabakiak hartuko ditu aurkezten zaizkion eskaeren aurrean, bai baliozkotzeen inguruan bai eta aukera askeko kredituen baliokidetasunak aitortzearen inguruan. Hori egiteko, indarrean dagoen legeria jarrai-

6.– Cada comisión nombrará a un Secretario o Secretaria de entre sus miembros en la primera reunión que realicen. Serán funciones de la Secretaría convocar las reuniones, a propuesta de su presidencia y levantar acta de los acuerdos adoptados en cada sesión.

Dichas actas junto con la documentación relativa, serán custodiadas por el Secretario o Secretaria Académico del Centro.

7.– Todas las comisiones presentarán, al inicio del curso académico y antes de la renovación de sus miembros, un informe a la Junta de Centro sobre las actividades realizadas durante el curso anterior.

*Artículo 9.–* Comisión permanente.

1.– Se establece una Comisión Permanente delegada de la Junta de Centro. La Comisión estará formada por el Director o Directora, que será su presidente, el Administrador o Administradora que actuará de Secretario o Secretaria, 6 miembros representantes de funcionarios de los cuerpos docentes universitarios, 1 miembro representante de otro personal docente o investigador, 3 miembros representantes de los estudiantes y 1 miembro representante del personal de administración y servicios, todos ellos miembros de la Junta de Centro.

2.– Deberá renovarse cada año y en la primera sesión ordinaria tras la elección de los representantes de los alumnos en la Junta de Escuela.

3.– La Comisión Permanente tiene delegadas las funciones c), e), f) y i) y cuantas otras estime oportunas la Junta de Centro, estando expresamente excluidas las a), b), k) y m) del apartado 2 del artículo 8 de este Reglamento.

4.– Las decisiones adoptadas deberán ser ratificadas o modificadas por la Junta de Centro, en la siguiente convocatoria de la misma, siguiendo las pautas de lo establecido en el artículo 16.2 del Reglamento marco de los Departamentos de la UPV/EHU.

5.– Las reglas básicas de funcionamiento serán las mismas que las de la Junta de Centro, exigiéndose un quórum del 60% para su constitución y validez de sus acuerdos.

*Artículo 10.–* Otras comisiones.

a) Comisión de Ordenación Académica y Convalidación de Estudios.

1) Estará constituido por el Subdirector de Ordenación Académica y formada por tres profesores, y un alumno de tercer curso. Los profesores y el alumno serán nombrados por sus respectivos representantes en la Junta de Centro, sin tener que ser obligatoriamente miembros de la misma.

